


Trantsizio ekosozialista
eta feminista gauzatu
eta ondasuna banatzeko
neurriak

2022^{ko}
iraila



LAB

AURKIBIDEA

0. Sarrera	3
1. Aberastasunaren bidezko banaketa: enplegua, zaintza lanak eta ondasuna banatu	4
2. Zerbitzu publikoak, pentsioak eta oinarrizko eskubideak	5
3. Krisi ekologikoari aterabide egokia	6
4. Erabaki ahalmena, demokratizazioa	6

0. SARRERA

Hamarkadetako politika neoliberalak krisi ekosozial larria eragin dute hala orokorrean nola Euskal Herrian bertan. Hazkunde ekonomiko mugagabearen mitoa amaituta, pertsonen nahiz planetaren bizitza erdigunean jarriko duen eredu berri bat eraiki beharra dago.

Ukrainako gerran, negoziazio eta bide diplomatikoen aldeko irtenbidea alboratu izana eta gerra denboran luzatzea ekarriko duten erabakiak, egoera are gehiago larriagotzen ari dira.

Aldiz, eliteen asmoa honakoa da: euren etekinei eustearren azaleko aldaketak egin eta krisi ekosoziala langileok ordaintzea. Bizitzaren garestitzea, enpleguaren prekarizazioa, zaintza krisia edota elkar gurutzatzen diren diskriminazio desberdinak horren ondorio dira.

Euskal Herrian badira herritar guztiei bizitza duina bermatzeko baldintza ekonomiko eta sozialak. Gaurdanik bertatik politika publikoak aldatu eta burujabetza eskuratu beharra dago horretarako. Trantsizio ekosozialista eta feminista abian jarri.

Bizitza posible egiten duen planetaren mugak aintzat hartuta, dauden baliabideak era justuan banatu daitezten aldarrikatzera goaz. Lantokietan nahiz kalean, langileoi zor zaiguna aldarrikatzera goaz. Zor zaiguna eskuratzeko borrokatzera goaz.

1. ABERASTASUNAREN BIDEZKO BANAKETA: ENPLEGUA, ZAINZA LANAK ETA ONDASUNA BANATU

Soldata duina:

- Soldaten eros ahalmena bermatu. Soldatak KPlaren arabera igo. Negoziazio kolektiboa desblokeatu.
- Soldata arrakalarekin amaitzeko neurri errealak sustatu. Sexuen araberako lan banaketarekin amaitu eta emakumeoi egozten zaizkigun lanei dagokien balio politiko, ekonomiko eta soziala eman.
- Gutxieneko soldata 1.400 eurotako 14 pagatan ezarri.
- Gehienezko soldatak eta plusbaliak legez mugatu. Oraingo testuinguruan, dibidendu banaketa debekatu.

Lana:

- Zaintza lanak eta enplegua erantzunkidetasunez banatzeko, gehienez, 30 orduko eta gutxienez 20 orduko lanastea ezarri.
- Diskriminazio ororekin amaitu. Uberizatutako sektoreetako langileei lan eskubideak aitortu. Etxeko langileen hitzarmena sortu.
- Malgutasuna eta azpikontratazioa mugatu.

Zerga erreforma:

- Kapital erreteiei %1 eta %10 arteko erreteak ezarri.
- Irabazi enpresarialak: elkarrekin zergaren kenkariak ezabatu eta %35 tipoa nominala ezarri.
- PFGZn kapitalaren erreteiei lan erreteien trataera bera eman eta gehienezko tipoa %60ra igo.
- Zerga politika burujabea aldarrikatu eta BEZa moduko zeharkako zergak kudeatzea eskatu.

2. ZERBITZU PUBLIKOAK, PENTSIOK ETA OINARRIZKO ESKUBIDEAK

Zerbitzu publikoak:

- Herritar guztiei (euren egoera administratiboa edozein dela) osasuna, zaintza edota hezkuntzarako eskubidea bermatzeko zerbitzu eta politika publikoak garatu.
- Enplegu publikoak sortu/kontsolidatu; ratioak hobetu; pribatizazio politikak alboratu.
- Zaintza sistema publiko komunitarioa sortu.
- Garraio publiko sare eta azpiegiturak hobetu.

Pentsioak:

- Pentsioak eguneratzeko KPlaren erreferentzia kontuan izan
- 1.080 euroko gutxieneko pentsio publikoa denontzat, baita enplegurik izan ez duten emakumeentzat ere. Lan egindako eguna=kotizatutako eguna.
- Pentsio sistema publikoaren defentsa, pentsioen pribatizaziorik ez. Sistema propioaren aldeko egitasmoak martxan jarri.

Prestazioak eta eskubide sozialak:

- Enplegu bermatua denontzat. Administrazioak bere ardura bete ezean, gutxieneko soldataren adineko diru-sarrera bermatu enplegurik ez duen pertsonari.
- Argindarraren bukaerako fakturaren prezioa legez mugatu. Herritarroi argindar eteteak legez debekatu.
- Oinarrizko elikagaien prezioa legez mugatu. Espekulazioarekin amaitu. Elikadura burujabetzaren norabidean, nekazaritza agroekologikoa sustatu.
- Etxegabetzeak debekatu.
 - Etxebizitzaren salmenta nahiz alokairu prezioa legez mugatu.
 - Bigarren etxebizitzak zergapetu.
 - Alokairuzko parke publikoa sustatu.
- Herritar guztien egoera erregularizatu.

3. KRISI EKOLOGIKOARI ATERABIDE EGOKIA

- Energiaren sektorea publikatu.
- Trantsizioa oinarri ekosozialistetan planifikazioa egin eta langileon parte hartzea ziurtatu. Produkzio eta kontsumo eredia eraldatu: enpleguaren eta sektore produktiboen gaineko azterketa egin. Nagusiki emakumeok betetzen ditugun eta bizitza sostengatzeko ezinbestekoak diren lanak birbalorizatu eta birbanatuz eta ordezkatu beharrekoak zehaztuz.
- Lehentasunez, sektore estrategikoetan Bidezko Trantsiziorako Batzordeak sortu.

4. ERABAKI AHALMENA, DEMOKRATIZAZIOA

- Dauden eskumenak eta aukerak baliatu eredia aldatu, ondasuna banatu eta herritar guztiei bizitza duina bermatzeko.
- Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eratu. Lan Kode eta Gizarte Segurantzza propioa.
- Ekonomiaren demokratizazioa bultzatu.
- Sektore estrategikoetan tokiko enpresa sozialak sustatzeko plan integrala.